

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2013ko apirilaren 26a
335. zenbakia. 24. urtea

Herrira begira jarrita pentsakor

Orioko Udaleko arkitektoa izan zen Jabier Lertxundi 1981etik 1989ra. Zarautzen bizi da aspaldian, baina ez du Oriorekin duen lotura galdu.

05

Orioko kontuak
Euskaraz bizi-bizi plana

09

Kirolak
Binakako lasterketa mistoa

10

Aiako elkarrizketa
Aitziber Lizarralde

25

Herritarra
Mikel Rodrigo

garrailo publikoa
Gipuzkoa

Pertsona guztien mesederako tarifa bateratuak.

Garrailo-aldaketak baldintza onetan.

Erabilenaren araberako deskontuak.

Talde berezietarako zuzendutako hobariak.

Mugirekin, zu irabazle
Gipuzkoako garrailo publikoa bateratzen duen sistema berria duzu.

i 943 000 117
www.mugipuzkoa.com

Auto Azkue

Tf: 943 13 04 38

Allianz

Marigre Zaldúa
aseguru agentea

Ibai Ondo, 10 behe-pina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-maila: zaldua.delacruz.pa@allianz.es

2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orio (Gipuzkoa)

Tf: 943 835 990 www.2gurpil.com bigurpil@hotmail.com

Kinkladenda - Ume arropa

argine

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA UGARAREN TXARTELAREKIN

agirresarobe
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

- OBRA BERRIEN PROIEKTUAK
- ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK
- FATXADEN ERABERRITZEAK
- IGOGAILUEN PROIEKTUAK
- GREMIO KOORDINAKUNTZA
- INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ...

ITURRIBIDE 8, 5. BULEGOA, ZARAUTZ
BORJA AGIRRESAROBÉ, ARKITEKTOA 635 731722

edukitelegia

ANTILLA
jateleku

Abesbarru Kalea, 2 - Tel. 943 83 23 03

azkue
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

Dorronsoro Denda

1963tik zure ondoan

BETIKO DENDA

Tel 943 83 09 37

Udaberriari

1

Udaberria etorri zaigu barrezka degu bihotza, epeltasuna ere badator bazterrean utziz hotza. Galtza motz ta tirante nikiak jazteko galduaz lotsa, euzki berriak urtzen dunean negu beltzeko izotza.

2

Txoriak ere txorrotxioka etortzen dira ta hona beren kantuek ekartzen dute poza eta zoriona. Udaberria baitare ez al da oso margolari ona? Koloreztatu egiten baitu zuri beltzean zegona.

3

Hala ta guztiz udaberria dena polita al da ba? Asmatikoek polenarekin badituzte mila traba. Martxoko eguzki zitalak ere mazoarekin jo danba ta apirialean euriak mila aterkirik ezin laga.

335

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur Etxea
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 831 527
karkara@karkara.com
www.karkara.com

EditoreaKarkara taldea
kultur elkarte**Zuzendaria**

Lore Berasaluze

Erredakzio taldeaIrati Agirreazaldegi,
Onintza Aiestaran,
Iñigo Gaiton,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa
eta Idurre Lizarralde**Publizitatea**

Iker Gurrutxaga

Publizitatearen diseinua

Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketaElizabete Manterola
eta Rikardo Uzquidun**Ale honetako****laguntzaileak**Miren Andueza,
Itziar Barrenetxea,
Karlos Mintegi,
Ekiñe Saizar
Ixabel Unsain,
Eli Urdangarin,
Asier Zubizarreta,
eta Jokin Zumeta**Laguntzaileak**Iñaki Iturain
eta Xabier Sukia**Diseinua**

Karkara taldea

BanatzzaileakKattalin Bollain eta
Esti Uranga (Orio)
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**Gertu Koop. E. (Ofati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.050 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

**PUBLIZITATE PREZIOAK****Iragarkia alero jarrita**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko
Iker Gurrutxagarekin hitz egin
(943 831 527) edo
karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK**EUSKO JAURLARITZA**

Kultura Sailak
 diruz lagundutako
 hedabidea

Oriok Zero Zabor lurralde izatea merezi du!

Bada ia urte eta erdi Orion hondakinen mahaia sortu genuela Udalean ordezkarrizta duten alderdiek –EAJk, Bilduk eta Orainek– eta Oriok Zero Zaborrek. Ibilbide horretan zehar Oriok birziklatze maila egokia ahalik eta azkarren lortzea izan dugu helburu, baita herritarrei horretarako baliabideak ematea ere.

Egunero eta lotsarik gabe, ongi sailkatu eta bereizi daitezkeen materialak edukiontzi ezberdinetan nahastuta ditugu %30 inguru birziklatuz; eta gaur egun axolagabekeria hori onartezina zaigu.

Alderdi politikoen helburuak jakinik, ordea, ez dirudi batzuei ez birziklatzeak axola handiegirik dienik. 2015 amaierarako %65 birziklatzeko asmoa azaldu du EAJk; 2014 amaierarako %70koa Bilduk; eta Orainek 2013 amaierarako %35koa. Oriok Zero Zaborrek ezinbestekotzat jotzen du materialak berreskuratzeo neurriak hartzea hondakinen mahaia, eta ez, inola ere, Orain alderdia bultzatzen ari den immobilismo egoeran sartzea.

Jada badira urte mordoska Zero Zaborreko kideok hainbat lan eta ekintza jorratzen ari garela herrian, Zero Zabor lurralde bat bihurtzeko Oriok; eta ez dugu onartuko gaur egun Oriok egunero sortzen duen zabor pilak eta guri, edo benetan eredu egoki baten alde lanean ari direnei, leporatzerik. Ezta ere gure asmoak utopikoak direla salatzerik, Europako hainbat lurraldek gaudituta edo bideratuta baitute arazo hori; aurrekariz inguratuta gaude. Gure partetik, momentuz, hondakinen mahaia lantzen jarraitzeko gogoak amaitu zaizkigu. Instituzioen eta norbanakoen betebeharrak izan behar du ingurugiroa eta gure etorkizuna zaintzea.

Horrez gainera, EAJk eta Bilduk onartutako auzokonposta guneak eraikitzen jarraitzeko asmoa dugula adierazi nahi dugu eta herritarrek ekintza horretan parte hartzea gonbidatzen ditugula. Ziur baikaude merezi duela.

Besterik gabe, hondakinak konpostatzeko asmoa azaldu dutenei eta horretan ari direnei, guk lanean jarraitzeko auspoa izan direla adierazi nahi diegu lez haur hauetatik.

Bestalde, elkarte gastronomikoek ere zaborra gaika biltzeko asmoa erakutsi dutela jakinarazi nahi dugu. Guk material bakoitza bere bidean jartzen lagunduko diegu. Beraz, badakizue, ongi sailkatu. A! Eta zaborrik onena sortzen ez dena dela gogoratu! ■ **Oriok Zero Zabor**

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAra bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri –Kultur Etxean– edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena rekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

Hertzainak eta Ertzainak

Joan ginen bai askegunera. Ezin dut onartu zortzi donostiar gazteri ezarritako kondena. Herri harresi bat eraiki eta kondenatuak babesteko deia entzun eta ahal bezain laster gerturatu ginen Bulebarrera. Osteguna zen, ostegun iluntzea. 500 bat gazte lo sakutan *h*-ak noiz etorriko. Guztiak ere *h*-en eraso bortitzen beldur. Egun batzuk lehenago, Ekaitzen atxiloteta egunean, burua ireki zioten *h*-ek gazte bati, besteak beste. Gaueko hamabiak ziren eta Aske Guneko sirena joka. Tentsio une izugarria, badatoz *h*-ak. Eutsi ondokoari eta barren barretetik ateratako oihiak kanporatzen hasi ginen *Ez gaituzte geldituko!* Segituan *h*-en bi furgoneta eta patrulla batek alde egin zutela jakin genuen. Txalo zaparradak eta oihiak irten ziren gure barrenetik. Goizeko lauretan jokaldi berdina egin zuten *h*-ek. *H* bihotzgabeak tentsioa areagotu nahian zebiltzan.

Ostiralean izugarritzko jendetza bildu ginen egun osoan zehar Aske Gunean. Eguerdian *h*-en furgoneta mordo bat Donostia alderantz zetozela zabaldu zen eta edozein unetan espero genuen *h*-en etorrera. Bertan geunden jendetza tentsioa apur bat lasaitzeko arrazoia bihurtu zitzaidan. Inguruko herrietako gazte pila bat bildu ginen. Bilbotik autobus bat eta Kataluniatik hiru autobus etortzekoak zirela entzun genuen. Jende heldua ere ugari bildu zen. Oriotik ere baginen gerturatutakoak. Tartean herriko alkatea eta udal ordezkariak, zoritxarrez guztiak Bildukoak. Poztu ninduen haiek

ere Aske Gunean ikusteak. Azkenean goizeko seiretan ikusi genituen Donostiako *Abenida* ingurutik *h*-ak etortzen. Aske Gunera abisua eman eta korrika betean joan ginen herri harresia eraikitzaera. Beranduegi, *h*-ek jada beren harresia eraikia zuten herri harresia ez indartzeko. Muturren aurrean genituen kondenatuak, herri harresia eta jesukristoren *h* mordoak.

Zortzi errugabek seina urteko kartzela zigorra bete beharko dutela jakitearekin nahikoa samin ez, eta orduan areagotu zen gure amorrazioa. *H*-ak etengabe gu grabatzen hasi ziren eta berehala furgoneta bat jarri zuten gure parean guri herri harresian gertatzen ari zena ikustea oztapatuz. Gure erantzuna batbatekoa izan zen. *Iñigo Cabacas gogoan zaitugu!* *H*-en kamera porrazoei eta *h*-en bortizkeriari bizkar ematen ari zen berriro ere. Ekintza baketsu ugari ezkutatuarazi dituzte *h*-ek jendea herren, antzu, itsu edo hilik utziaz. *H*-en aurrean geundenon oihiak bat zetozen. *Perros guardianes del orden y la Ley, asesinos a sueldo del poder!* *Zuek hil zenuten Iñigo Cabacas!* *Errepresioa ez da bidea!*

Aurpegia tapatuta izaten dute *h*-ek eta ezin jakin, baina ez dut uste gure inguruan *h*-rik bizi denik. Guztiak bulegoetan egoten diren ertzainak omen dira eta.

Bederatziak aldera eraman zituzten atxilotuak, baina egun haietan Aske Gunean bizitakoa oso serioa eta aberatsa izan da. ■ **Iboni**

Orioko EAJ oriotarren kezkei erantzuna ematen

Herriaren zerbitzura dagoen alderdia izanik, herrian bertan eta bere herritarrei gertatzen zaizkien edo oriotarrak kezkatzen dituen gauzek arduratzen eta kezkatzen dute Orioko EAJ. Horren adibide, aurreko asteazkenean Alkoholiko Anonimoen laguntzari esker, gaztedia eta alkoholari buruzko hitzaldia egin zen, alderdiak eta Toki Alai elkarteak erabiltzen duten egoitzan.

Guraso batzuek azaldutako kezka ondorioz antolatu zen hitzaldia, laguntzeko espirtuarekin. Aurrerantzean ere horrelakoak antolatzeko asmoa badugunez, kezkatzen edo interesatzen zaizkizuen gaien berri eman ahal izateko ondorengo helbide elektronikoa jarriko dugu zuen zerbitzura: ejj.pnv@gmail.com

Bertan jasotzen ditugun iradokizun eta eskaerekin hitzaldi, lan saio edo hobekien dagokiona antolatuko dugu.

■ **Orioko EAJ.**

Euskaraz hitz egiteko nahia elikatzea izango du xede Bizi-bizi egitasmoak

Ekosistema euskaldunetik ateratzean, gaztelararako saltoa erraz ematen dugula ondorioztatuta, euskararen aldeko hautu kontzientea indartu nahi du Euskararen Aholku Batzordearen proiektuak

Azken urteotan euskararen normalizazioan asko aurreratu bada ere, beste pauso handi bat ematera dator orain *Euskaraz Bizi-bizi* egitasmoa, Orion. Bizimoduaren parterik handiena euskaraz egiteko modua badugu gure herrian, baina, besteak beste, gaztelaniaren presentzia handiak erakarrita, euskara erabilteze nahia, gure hizkuntzaren aldeko jarrerara kontzientea, sendotu nahi du Orioko Udaleko Euskararen Aholku Batzordearen azken proiektuak.

Izan ere, 2011ko otsailean egindako *Orio*. *Euskarazko arnasmunean sendotu* jardunaldiaren ondorio nagusietako bat zera izan zen: gazteek ekosistema euskaldunean euskarari eusten badiote ere, behin hortik aterata oso erraz jotzen dute gaztelaniara.

Aurkezpena

Apirilaren 19an, 19:00etan, aurkeztu zuen Orioko Udalak *Euskaraz Bizi-bizi* egitasmoa. Aurkezpenean bertan izan ziren, besteak beste, Jokin Azkue –Jaur-laritzako euskararen promozio zuzendaria–, Zigor Etxaburua –Foru Aldundiko Euskara Zuzendaria–, Malen Belastegi –UEMAko lehendakaria–, Iker Salaberria –Kontseiluko koordinatzailea–, Jabier Zabaleta –euskara teknikaria–, Beñat Solaberrieta alkatea, Jon Agirresarobe –euskara batzorde burua–, Lourdes Salsamendi-EAJko zinegotzia eta egitasmoko logoaren egile Uxo Zulaika.

Gure ama hizkuntza gutxiagotuta da goen eremuan, euskarari lehenetasuna eman behar zaiola eta euskaraz lan egiteko urratsak eman behar direla adierazi zuen, besteak beste, Etxaburuak.

Azkuek, berriz, bi galdera jarri zituen mahai-gainean: nola indartu euskal hiztunaren nahia zenbait egoeratan ere euskaraz jarduteko? Eta, are gehiago, nola indartu egungo gazteen nahia euskaraz gehiago egiteko?

Bestalde, orain arteko joerari buelta emateko beharra nabarmendu zuen Salaberriak: euskara espazioan nahiz eza-gutzan uzkuertuz joan den bezala, zabal-tzen lagundu behar zaiola adierazi zuen, norbanakoen euskararekiko portaera aldatuz, euskararen arnasmune berriak



Erakundeetako ordezkari ez gain, herritarrak ere izan ziren Bizi-biziren aurkezpenean. KARKARA

sortuz eta hizkuntza politika egokiak erabiliz.

Belastegik, bere aldetik, Bizi-bizi moduko proiektuen garrantzia azpimarratu zuen eta UEMA laguntzeko prest da goela gehitu.

Salsamendiren hitzetan, euskarak egunerokotasunean presentzia izan dezan eta Oriok arnasmune izaten jarrai dezan segi behar da lanean.

Euskararen erabileraren aldeko aldarria plazaratzeko premiak urte osorako ekintza-plana osatzea ekarri du: martxotik abendura artekoa

Agirresarobek hartu zuen hitza gero, euskararen aldeko jarrera kontzientea barneratzeko dugula eta kaleko elkarrizketak irabazteko ditugula adierazi zuen. Azken batean, egitasmoaren funtsa gogorazi zuen: euskaraz hitz egiteko nahia elikatu behar dugula Orion.

Herriko taldeak eredu

Duela 20 urte sortutako *Euskaraz gazte* egitasmotik hona asko aurreratu dugu

euskararen normalizazioan, eta Udalak ere ahalegin handia egin du bere burua euskalduntzen, Zabaletaren iritziz. Orioren errealitatea irudikatzen asmoz, aurkezpenean izan ziren Orioko Arraun Elkarteko Iñaki Arostegi, KARKARAKO Lore Berasaluze eta Unai Mantrola, elizaren ordezkaria, bakoitzak bere alorrean dituen euskararen inguruko erronkak azaltzeko.

Ekintza plana

Euskararen erabileraren aldeko aldarria plazaratzeko premiak urte osorako ekintza-plana osatzea ekarri du: martxotik abendura artekoa, oraingoan.

Egitasmoa jendaurrean aurkeztuta, ekintzei heltzeko garaia da, hortaz. Apirilari dagokionez, euskarari buruzko go-goetak, gertaerak eta bizipenak argitaratzeko *Bizi-bizi* bloga sortu nahi da KARKARA.COM-en.

Maiatzean, berriz, soziolinguistika-gaiei buruzko aurreneko hitzaldia eta nerabeentzako *Zergatik ez?* tailerra eskainiko dituzte. Horrez gain, bi urtez behin egiten den euskararen erabileraren kale neurketa egingo du Euskararen Aholku Batzordeak.

Mus txapelketak bilduko dituen Liga antolatu du festa batzordeak

Hilean behin jokatuko dira mus saioak eta apirilaren 26an izango da estreinakoa Loretxu tabernan, Herrirak antolatuta. 21:30etik 22:00etara bitartean eman beharko dute izena bikoteek

Festa batzordeak antolatuta, Mus Liga egingo da lehen aldiz Orion, apirilaren 26an hasita. Auzoko festetan edota helburubereziekin egin izan dira orain arteko txapelketak gurean: Goiko Kaleko festetan, Anibarko Portukoetan, Sanmartinetan, euskal presoen alde, Orioko Arraun Elkartea laguntzeko... Horiek guztiak hartuko ditu orain Mus Ligak. Irekia izango da Liga, edonorentzako.

Lau erregetara jokatu dira Ligako partidak. Lau hamarrekotara lau joko edo ustel egiten dituen aurrenekoak irabaziko du lehia.

Txapelketen batura

Hilean behin izango dira saioak eta horietako bakoitzean eman beharko du izena parte hartu nahi duen bikoteak. Guztietan jokatzeko modurik ez duenak Ligan

jarrai dezake, baina jardunaldi horretan punturik ez du izango.

Gainontzean, saioetan parte hartu ahala eta izandako emaitzen arabera banatuko dira puntuak. Parte-hartze hutsa bera saritua izango da: 10 puxtarri jasoko ditu bikote bakoitzak txapelketa normaletan parte hartzeagatik; jaietako txapelketetan aritzeagatik, berriz, 20 puxtarri.

Horrez gain, 100 puxtarri emango zaizkio txapelketa bakoitzeko pare irabazleari; 60 puxtarri bigarren sailkatuari; eta 30 puxtarri hirugarrenari. Dena den, txapelketa bakoitzak tokian tokiko araudi eta sariak izango ditu banatzeko.

Finala, Sanikolasetan

Bederatzi jardunaldiko Liga izango da aurtengoa. Sanikolasetako egitarauaren barruan jokatu da azkenekoa, finala. Denboraldia txukunen egin duten 16 bikote sailkatuko dira finalerako.



Hilean behin izango dir mus txapelketak. GOIKO KALEKO FESTA BATZORDEA

MUS TXAPELKETAK

Apirilaren 26an: Loretxun, Herrirak antolatuta.

Maiatzaren 24an: Loretxun –Herrira–. **Ekainean:** Anibarko Portuko mus txapelketa, auzoko jai batzordearen esku.

Uztailan: Bixigu Eguneko txapelketa.

Abuztuan: Loretxu tabernan, Herrirak antolatuta.

Irailaren 27an: Loretxu tabernan, Herrirak antolatuta.

Urrian: Goiko Kaleko Mus Txapelketa, auzokoek antolatuta.

Azaroan: Sanmartinetako Txapelketa, bailarako festa batzordeak antolatuta

Sanikolasetan: Mus Ligako finala

LABUR

Kultura

Artisau azoka

Maiatzaren 5ean artisau azoka izango da 10:30etik 19:00etara Herriko Plazan eta zimitorioan. Artisauak beren lanak erakutsi eta salduko dituzte: bitxiak, xaboiak, panpin etxeak, arropa, poltsak, ukenduak, sendabelarrak, kuxinak, txotxongiloak... Jatekorik ere izango da aukeran: taloak, gazta, pastelak, garrapiñatuak, hortxata eta ahate produktuak.

Aisialdia

Zaharren Babeslekuko bidaia

Zaharren Babeslekuak bi bidaia antolatu ditu. Batetik, irailaren 16tik 25era Marokora joango dira bidaian, Torremolinos, Algeciras, Tanger, Fez, Beni Mellal, Marrakex, Casablanca eta Rabaten barrera. Maiatzaren 20a baino lehen eman behar da izena 626 471 423 zenbakira deituta. Bestalde, maiatzaren 23an Iratxera egingo dute irteera, 35 euroren truke. 08:30ean abiatuko dira, bodegara bisita egin, Lizarrako azoka ikusi eta Iratxen bazkalduko dute. Maiatzaren 9an eman behar da izena, 16:00etatik 18:00etara.

Hezkuntza

Orioko Curriculumua

Apirilaren 19tik 25era bitartean Orioko 3ten jardunaldiak izan dira. Oriotarren izaera bilduko duen material pedagogikoa biltzeaz eta aurkezteaz gain, beren azalpenak egin dituzte euskara, hezkuntza eta historiaren inguruko adituek. Horretaz gain, apirilaren 20an autopista azpian zutabeak margotu zituzten. Jardunaldiak bukatzeko, maiatzaren 4an, 11:00etan, Kiroldegian edo Kultur Etxea atzeko plazan ijitoen akordioa sinatuko dute herriko talde zein norbanakoek festa giroan. Poro tx pailazoak alaituko du jaiak.

13 helburu eta 53 proposamen ditu Orioko Berdintasun Planak

Murgibe berdintasun aholkularitzak egin du plana Udal langileekin eta herriko eragileekin. Beharrak jaso eta horiei irtenbidea emateko proposamenak aurkeztu dituzte

Udaleko Gizarte Ongizate Batzordearen eskariz Udal langileekin eta herriko eragileekin berdintasun-plana landu du Murgibe Berdintasun Aholkularitzak.

Ongizatea, Enplegua eta Merkataritza zinegotzi Miriam Urangak planaren helburu nagusia Udal kudeaketan genero ikuspegia txertatzea dela adierazi du. *Berdintasunaren aurrean egun seinalatuetan ekintza zehatzak baino ez dira egiten eta plana abiapuntutzat hartu behar da gai horren inguruan koherentziaz eta helburu zehatzekin jokatzeko.* Orioko Udalak berdintasun teknikaririk ezean, genero ikuspegia landuko duen eragile taldea sortzea dela asmoa gaineratu zuen eta horretarako Xaltzerak taldea aipatu zuen aukerako eragile modura.

Planaz arduratu den Murgibe Berdintasun Aholkularitzako Itxasne Martinezek jakinarazi duenez, 40 pertsonak hartu du parte plana prestatzeko elkarrizketa, galdera eta abarretan, baina ondoren egindako herri topaketan hamar emakume eta gizonezko bat baino ez ziren izan. Emakume eta gizonezkoen berdintasun gaietan dauden beharrak jaso zituzten prozesu horretan eta Martinezen ustez, *behar horiei erantzuteko lehen pausoa izan liteke plana.*

Beharrak

Beharren artean daude, besteak beste: enplegu sustapenean emakumeen presentzia bermatzea; genero indarkeriari edo emakumeekin erabili beharreko hizkuntzari buruzko heziketa bultzatzea; Udal datuak sexuaren arabera bereiztea; hizkuntza erabilera ez sexista sustatzea; emakumeen autonomia edo autoestimua bultzatzea; sexu estereotipoak haustea, jostailu eta ipuin ez sexistekin, esaterako; ustez gizonezkoenak diren etxeko konponketetan emakumeak heztea ikastaroen bidez; gizonezkoak etxeko beste hainbat lanetan, sukaldean, adibidez, heztea; emakumeek nerabezarotan kirola utzi ez dezaten animatzea; balio aldaketak lortzeko ikastetxeekin lan egitea; emakumeek historiari egindako ekarpenak jasotzea; jaietan berdintasun eta aniztasun ekintzak bultzatzea eta eraso sexistei aurre egiteko bideak aurkitzea.



Miriam Uranga zinegotzia eta Murgibe aholkularitzako Itxasne Martinezek plana aurkezten. KARKARA

Kontziliazioari eman beharreko garrantzia eta genero indarkeria gai esanguratsuak dira planaren baitan. Horren harira aipatu ditu Itxasne Martinezek proiektua egiterakoan eta planean agertutako hainbat puntu: autodefentsa ikastaroak, genero indarkeriaren aurkako egunean ekintza bereziak eta ikasleekin balioen lanketa egitea. Baita herriko puntu ilunak identifikatzea ere.

Protokolo baten beharra azpimarratu dute genero indarkeria egoerarako, orain Eusko Jaurlaritzako protokolo orokorra erabiltzen baita

Horretaz gain, genero indarkeria egoerarako protokolo baten beharra ere azpimarratu dute, baita hori egoki egiteko heziketa ere. Besteak beste udaltzaintzako, gizarte-ongizateko edo ikastetxetako kideek nola jokatu behar duten jakin dezaten. Izan ere, orain artean Eusko Jaurlaritzako protokolo orokorra baino ez da erabiltzen Orion.

Helburuak eta ekintzak

Behar horiek kontuan izanda, planak 13 helburu eta 53 ekintza zehatz hartu ditu bere baitan eta lau ardatzetan banatuta: berdintasuna Udalean zeharkako lerro gisa; kontzientzia eta balio aldaketa; kontziliazioa; eta genero indarkeria.

Miriam Urangak, Itxasne Martinezek eta baita planaren aurkezpenera joandako hainbat Udal langilek ere esan du plan hau ez dutela egin udaletxeko apalen baitean gelditzeke, erabil dadin baizik.

Aurkezpenaren ondoren, herritarrei planari buruzko iritzi eta ekarpenak egiteko aukera eman bazitzaie ere, Udaleko gizarte zerbitzuetan ez dute inolako erantzunik jaso. Hala ere, edozein orotarrek ikusgai izango du Berdintasun planaren txostena www.orioka.com-en.

Hemendik aurrera, plana udalbatzarraren onartuz gero, Xaltzerak taldekoeekin edo planaz arduratuko den beste norbaitekin batzarrak egingo dituzte eta planean zehaztutako helburuak eta ekintzak lehenbailehen martxan jartzea da Berdintasun plana gauzatzen aritu diren asmoa.



Aitor Matxain pilota palaz jotzen Juanjo Poloren eta Xabier Iribarren aurkako partidari. KARKARA

Hiru jardunaldi jokatu dituzte dagoeneko Orioko pala txapelketan

10 bikote ari dira txapelketa nork irabaziko lehian. Ostiraletan jokatzen dituzte pala partidak Orioko frontoian, 18:00etan hasita, lau norgehiagoka erreskadan, bata bestearen atzetik

Lehen hiru jardunaldiak jokatu dituzte Orioko 4. pala txapelketan eta dagoeneko sortu da nahikoa saltsa. Hiru ostiraletan pilotutako emaitzek ezusteko bat baino gehiago eman diete antolatzaile eta jokalariei.

Lehenengo bi jardunaldietan bina garaipen eskuratu zituzten Aitor Matxain eta Iñaki Iturainek eta Urko Aldalur eta Iosu Larrarte aiarrek osatutako bikoteek. Estreinakoan aisa nagusitu ziren bi bikoteak, aurkariak 19 tantoan utzita, baina bigarren jardunaldian gauzak esutuago eduki zituzten.

Bikote aiarra Iñaki Beobiderek eta Eneko Etxaberek lehian izan zen eta tanto bakarreko aldeaz, 30-29 irabazi zuen partida. Matxainek eta Iturainek, berriz, Xabier Iribar -Jagoba Solaberrietaren

ordezkoa- eta Juanjo Polo izan zituzten parez-pare. Aurretik elkarrekin txapel-dun izan dira bi aldiz Matxain eta Polo, baina oraingoan, elkarren aurka, Matxain nagusitu zitzaion Polori, 30-24.

Gauzak horrela, hiru jardunaldi jokatuta, 2 partida irabazita aurrena doaz A multzoan Iturain eta Matxain, gainontzeko bikoteek baino partida bat gehiago jokatu dute-eta. Bestela, partida bana irabazi eta galdu dute multzoko bikoteek. B multzoan, berriz, 2na partida irabazita daude hiru bikote baina Berasaluzek eta Illarramendik dute tanteo onena.

Datorren jardunaldia

Apirilaren 26an izango dira hurrengo partidak, arratsaldeko 18.30ean hasita. Lehia estuko partida ugari izango da.

LABUR

Arrauna

Bi ontzi Euskadiko txapeldun

Apirilaren 20an eta 21ean jokatu zen Euskadiko batelen txapelketa Legutian. Aurretik, astebete lehenago, Gipuzkoako batelen txapelketa irabazi zuten Pasaiko uretan kadete mutilek. Gipuzkoan lortutako emaitzekin baikor izateko moduan ziren Euskadiko txapelketan ere. Gauzak horrela, larunbateko sailkapenean lan ona eginda, igandean borobildu zuten lana eta Euskadiko txapelketa irabazi egin zuten kadete mutilek. Hibaika izan zen bigarren ia 8 segundora, eta hirugarren Tolosaldea 9 segundora. Baina mutilek ez ezik, kadete neskek ere txapelketa irabazi zuten, beste bandera bat ekarri Oriora. Hibaika izan zen hemen ere bigarren 7 segundora eta hirugarren Hernani 8 segundora. Gainontzeko senior mutilek brontzezko domina ekarri zuten etxera. Portugalete izan zen txapeldun, bigarren Urdaibai segundoko erdira eta hirugarren Orio 3 segundora.

Sofbola

Garaipen garrantzitsuak

Orioko sofbol taldeak asteburuan oso partida garrantzitsuak jokatu zituen etxean. Espainiako Ligako aurkari gogorrenak, Sant Boi taldeko kataluniarrak, izan zituzten aurrez aurre. Halere, emaitza ezin hobekak lortu eta lider dira sailkapen nagusian. Lehenengo partida 3-0 irabazi zuten; bigarrena, berriz, 10-9. Espainiako titulua irabazteko itxaropena piztu diote garaipen horiek Kirologi OBB-ri. Madrilen izango dute hurrengo zita.

Futbola

Hirugarren postua eskura

Garaipen garrantzitsua lortu zuen Martuteneren zelaian apirilaren 20an erregionalerako gizonen taldeak. Lehia 0-4 irabazita, sailkapenean donostiarren aurretik jarri eta hirugarren postua esku-eskura jarri zaie. Bi puntura dute Mariño taldea eta hiru jardunaldi baino ez zaizkie geratzen Liga bukatzeko.

Automóviles ZARAUZ
CITROËN ZERBITZU ORIGINALA
Ezagutu bertatik eta 16.000tik aurrera
ZARAUZ, Tel. 943 13 13 50

BERME Aholkularitza S.L.
Zerga eta lege aholkularitza

- ENKARGATUTAKO AHOULKULARITZA
- AHOULKULARITZA IRISGA
- AHOULKULARITZA JURIDIKOA
- EAE-ENKARGUEN AHOULKULARITZA
- FISCALIA AHOULKULARITZA
- AHOULKULARITZA AHOULKULARITZA

Jakob Matarrita Etxepare
Tel. 943 61 01 22

Berme 19.000
943 61 01 22
E. 943 61 01 22

Igo zaitez haize berrietara!

Galerna I

943890416 677149934
galerna.lario@hotmail.com

Karkara eta Berriaren aldeko binakako lasterketa mistoa izango da maiatzean

Maiatzaren 18an izango da proba. Lau kilometro eta erdiko ibilbidea egin beharko dute helduek, 17:00etan hasita; haurrena, berriz, bi kilometro eta erdikoa da eta 16:30ean aterako dira KARKARA atzetik

Binakako lasterketa mistoa antolatu dugu KARKARAK eta Berriak lehenengoz maiatzerako. Euskal komunikabideen krisi ekonomiko, sozial eta emozionalari erantzun nahian, festa eta aldarrikapen kutsuz, Berria egunkariaren eta KARKARA aldizkariaren alde korrika aritzera animatu nahi ditugu oriotarrak, aiarrak eta inguruko herritarrak. Maiatzaren 18a, larunbata, izango da horretarako eguna.

Lasterketa berezia izango da inondik inora ere. Lehenik eta behin, helduek nahiz haurrek –ibilbidearen zati txiki bat egin behar duten umeak kenduta– bina-ka, neska-mutil, egin beharko dute korrika, hasi eta buka.

Horrez gain, ibilbideari erreparatuz gero, indarra hartuz joan diren Orioko Herri Lasterketatik eta San Silbestretik zertxobait urruntzen da. Ibilbide motza eta luzea izango dira, 16:30ean eta 17:00etan hasita, hurrenez hurren. Biak ere Kultur Etxe atzeko plazan hasi eta

Herriko Plazan bukatuko dira. 2,5 kilometroren bueltan ditu haurrei zuzendutako ibilbide motzak eta Eusko Gudartik eta Bikamiotatik pasata, autopista azpian hartuko dute buelta, errio ondoko paseotik plazara joateko.

Ibilbide luzeak, berriz, 4,5 kilometro ditu. Hondartzaraino joan beharko dute korrikalariak, Bikamiotatik eta Abaromenditik pasata. Hondartzako biribilgunean ezkerretara hartuko dute ahateen eremuaren ondoko egurrezko pasabide zabalenetik igaro eta Kirol portu gainetik, errio alboko paseora abiatuz. Ikastola aurretik Abeslarira; eta handik Eusko Gudarira berriz. Frontoiko aldapa –Iturbidekoa– hartuko dute ondoren gorantza, Danbolin musika eskola aurretik Pillikura iritsiz. Kale Nagusitik behera, Herriko Plazan bukatuko dute lasterketa, aldapa behera.

Badu lasterketak beste berezitasun bat: izena ematean jasoko diren dortsalak paperezkoak dira eta beheko aldean

du zenbakia, gainerako espazio hutsa norberak diseinatzeko edo apaintzeko izango da. Hori bai, bikotekide bakoitzak berdin kustomizatutako dortsala eraman beharko du.

Izena emateko

Karela kiroldegian, Orioko Kultur Etxean, Orioko Herri Ikastolan eta Zaragueta Herri Eskolan eman daiteke izena Orion. Aian, berriz, Kultur Etxean daude dortsalak.

Bikoteko 10 euro ordaindu beharko dute helduek; haur eta gazteen kasuan doakoa izango bada ere, borondatea onartuko da.

Antolaketarako laguntza

Lasterketa antolatuta dago, baina maiatzaren 18rako laguntza behar dugu KARKARAK eta Berriak, besteak beste, bidegurutzeak zaintzeko eta trafikoa kudeatzeko. Eskuzabalik hartuko dugu laguntzeko prest dagoena eta gurekin harremanetan jartzeko deia egin nahi diogu, KARKARARA bertara –Kultur Etxera– etorrita, 943 831 527 telefonora deituta edota karkara@karkara.com helbide elektronikora idatzita.



Kultur Etxe atzetik atera, hondartzako buelta egin eta Goiko Kaletik pasata, Herriko Plazan bukatuko da lasterketa. KARKARA



KARKARA

“Guretzat kirola dena animalien lana dela esaten dute batzuk”

Aitziber Lizarralde

Giza-probalaria

Beti egon izan da kirol munduan sartuta: arraunean Orion eta Ur kirolak-en, orain triatloiak eta mendiko lasterketak prestatzen... Kirol berriak probatzeko kapritxoak izaten duten horietakoa da. Emakume probetan hasi eta gustukoa duenez horretan ari da.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Maiatzaren 11n Ibarako eta Ergobiko taldeen aurka arituko da Aitziber Lizarralde kide duen Orioko taldea. Kirolari aiarra gogor eta gogoz prestatzen ari da.

Noiztik hasi zinen giza-probetan?

Sanpedrotan Zumarragako neska talde baten kontra aritu ginen aiarrak. Gero, gure taldea desegin eta Zumarragakoe-kin hasi nintzen, baina hark ere ez zuen aurrera egin eta Oriora. Orain herri askotako neskak gaude.

Nola animatu zineten kirol horretara?

Orain gaudenok jende aktiboak gara. Zailena izan da bakarkako kiroleetatik taldekora pasatzea, zortzi pertsonak pausoa berdin-berdin ematea. Jendez ere juxtu ibiltzen gara, norbait falta bada kolokan. Bestalde, norbait gogorik gabe ari bada denok antzematen dugu, baina egoskor-rrak izanik entrenatzeko grina dugu.

Askotan entzungo zenuten: hori ez da emakumeen kirola.

Entzundakoan pasatzen uzten dugu, askotan esaten dutelako. Askok ez du gai-

nera esaten gizona kirola denik, animalien lana dela baizik. Proba edo erakustaldietan horiei erakutsi nahi diegu neskak ere bagarela horretarako gai.

Nola entrenatzen zarete?

Zaila da zortzi lagun eta entrenatzailea elkartzea; batzuk ikasten, besteak lanean... baina saiatzen gara astean behin, igandetan, behintzat denok harriari tiraka saioak egiten. Aste barruan entrenatzaileak, Imanol Etxeberriak, betetzen du falta denaren lekua. Horrez gain, bakoitzak bere aldetik egiten du entrenamendua. Ni oposaketetarako proba fisikoak prestatzen ari naiz eta txakurrarekin mendira ere joaten naiz.

“Zailena izan da bakarkako kiroleetatik taldekora pasatzea, zortzi pertsonak pausoa berdin-berdin ematea. Jendez ere juxtu ibiltzen gara, norbait falta bada kolokan”

“Aiako probalekuari errespetua diogu; guk lauan entrenatzen dugu eta han harriak daudenez...”

Aurreneko egingo duzue Aian txapelketa. Berezia al da herrian aritzea?

Gu beti erakustaldi eran aritu gara eta Orioko taldearekin behin jokatu genuen Ergobikoen kontra, beraz, nesken hiru talde elkartzea polita izango da, gehienetan mutilen aurka edo bakarrik erlojuaren kontra aritu izan gara. Etxean jokatzea ere beti da berezia eta Aiako probalekua bera ere lanerako zailagoa da.

Ingurukoek zer esaten dizute?

Ingurukoek baino etxeok uzteko esaten didate. Aita behar bada joaten ikusterera, ama ez, sufritu egiten duela esaten dit. Anaiari, berriz, ez zaio interesatzen.

Txapelketarako nola dago taldea?

Ergobikoen aurka jokatu genuen Zumarragan eta guk plaza gehiago egin arren ez dago konparatzerik. Taldea baino han egindako lana ezagutzen dugu. Ibarakoak lehenagotik ari dira taldean eta teknika hartua dute. Beldurra ez, baina bi taldeei diegu errespetua. Probalekuari ere errespetua diogu; guk lauan entrenatzen dugu eta han harriak daudenez... Bestela taldea gogor ikusten dut.

Jendea nola animatuko zenuke emakume probetara?

Emakumeei esango nieke ez dela kanpotik ematen duen bezain gogorra eta politena taldeko giroa dela, beraz, probatzen animatuko nituzke, baita jendea Aiako txapelketa ikusterera ere.



Donostiako Akuariumean izan ziren elkartearen ordezkariak -tartean Aiako alkatea-. BIZI SAGARDOA

Bizi Sagardoa elkarteko kide dira Aiako Udala, Izeta eta Satxota

Euskal Herrian sagardoaren kultura eta turismoa sustatzeko sortu da Bizi Sagardoa elkarte. Besteak beste 67 sagardogilek eta Gipuzkoako bederatzi Udalek egin dute bat egitasmoarekin

Azken udalbatzarrean beste hainbat gai-ekin batera Bizi Sagardoa elkarte izan zuten hizpide udaletxean. Elkarte sortzeko eta Aiako Udala hango partaide izateko erabakia hartu zuten aho batez.

Sagardoa eta sagardotegiak oinarri izango dituen elkarte da Bizi Sagardoa, Euskal Herrian sagardoaren kultura eta turismoa sustatzeko asmoz sortu dena. Turismo sektorerara egokitu eta produktu berriak martxan jartzea izango da elkar- te berriaren eginkizun nagusia.

Bisagardotegi

Egitasmo horretan elkartu dira lehen aldiz Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako sagardogile gehientsuenak, 67 guztira -Aiako Izeta eta Satxota tartan-.

Izeta sagardotegiko Mireia Esnalen esanetan, *orain arte turismoak eta sagardoa ez dute aparteko loturarik izan eta elkarte honekin hori bultzatu nahi dugu. Gurean oraindik bisita gidaturik egin ez arren etorkizunean horretarako asmoa*

dugu, kanpotik zein Euskal Herritik etorzen den jendeak jan-edanean ez ezik baiduelako interesa sagardogintzan ere.

Elkarteko kide izango dira era berean turismoa bultzatzen duten hainbat elkarte, museoak, fundazioak, garapen agentziak eta Gipuzkoako bederatzi udal ere, horien artean Aiakoa. Beren eginbidea eta proiektu berriak zehazten duena bat datozelako onartu dute Bizi Sagardoa elkartean sartzeari Igor Iturain alkateak adierazi duenez: *gure konpromisoa elkartearen bidez sagardoa eta bere inguruari bultzada ematea izango da. Aiak betidanik izan du gertu sagardoaren kultura eta gaur egun, herrian bisagardotegi baino ez dauden arren, baserritar asko dira sagarra landu eta saltzen dutenak.*

Sagardoaren ibilbidea sortzea da elkartearen asmoetako bat. Aiako Udalak momentuz ez dauka inolako ekimenik aurreikusita, baina orain ere, neurri batean behintzat bi sagardotegiekin elkarlanean ari direla esan du alkateak.

LABUR

Hezkuntza

Haurreskolako matrikula

Maiatzaren 2tik 13ra bitartean matrikulazio epea zabalik izango du Kimu haurreskolak. Izena emateko bete beharreko paperak haurreskolan jaso behar dira eta zein agiri eraman orduan jakinaraziko diete arduradunek. Bestalde, egokitzapeneko kuota ordaindu behar da matrikulazioa egiterakoan, 150 euro gutxi gorabehera. Haurreskolan urtebetera arteko umeentzako zortzi toki daude eta batetik birentzat 11. Datorren ikasturterako leku arazorik ez da izango, baina irailean gutxienez hiru haur ez badaude haurreskola ez dute irekiko eta oraingoz bi baino ez daude.

Aisia

Landare Berezien Azoka

Landarea-zaleek hitzordua dute Iturrango lorategi botanikoan asteburuan, apirilaren 27 eta 28an; hain zuzen ere, Landare Berezien Azoka. 49 mintegitako ordezkariak hartuko dute parte aurretan. Azoka 10:00etatik 18:00etara egongo da zabalik eta sarrerak lau euro balio du. Bestalde, Aiako plazan hainbat ekin-tza izango dira apirilaren 28an, 10:00etatik 15:00etara. Landareekin zerikusia duten produktuen erakusketa, salmenta eta hitzaldiak, auto eta moto elektrikoak eta gaztelu puzgarriak; Kultur Etxean, berriz, Ikebana -lore apainketa- tailerra eta erakusketa izango dira.

Musika

Bandaren kontzertua

Danbolin Musika Eskolako bandako ikasleek, kontzertua eskainiko dute Olaia Askasibarren zuzendaritzapean Aiako plazan. Bandako 40 partaideek saxofoia, klarineta, flauta, tronpetak, perkusioa eta pianoa joko dituzte maiatzaren 5ean, igandearekin. Kontzertua 12:00etan hasiko da eta bertaratutakoek honako piezak entzuteko aukera izango dute: *Sarabande, The Second waltz, James Bond Theme, Raiders March, Benny Goodman-Medley, The Best of Queen, Kantu Herrikoiak eta Deba.*

Afaria

Santioko eskolan ibilitakoak

Afaltzeko elkartuko dira Santioko eskolan ikasitakoak. Altxerri jabetxean izango dute afaria maiatzaren 4an, baina izena emateko apirilaren 29a baino lehen denu behar da 600 743 189 zenbakira.

Kukuak ku-ku

Kukuaren hotsa, kukuaren hotsa, urtero entzuteak pozten du bihotza, esaten du Larrañagak. Eta Joxemiel Iztuetak nola dabilen: *zuhaitzik zuhaitz ku-ku hemen eta ku-ku han, kalendario gabe badaki noiz etorri ta noiz juan.*

Martxoko Ama Birjina egunean pasatzen omen da Erromako zubitik, baina aurten bezperan pasatu zelakoan gaudegu, Ostegun Santu egunean kantatua baitio bati, gure etxearen goiko aldean, Sarobe gurutzeko pinu artetik: *ku-ku, ku-ku*. Horren goian askotan kantatu gabekoa.

Lertxundik dio urte ona datorrenaren seinale jotzen zutela aurrekoek. Premian gaude ba, hara!

Entzuteko desiratzen eta luze iritiziz, zain eta zain dago jendea piztiak noiz kantatuko: *Kukua aditu al duzue? Ez, oraindik ez*. Eta, gutxien uste denean, taka! Eta bat-batean eskuak patrikara. *Zer? Aurtengoak ere horrela beharko duela, gurean kaput, alegia. Funts gabea dela, baina pasa ezak orain beste urtebete kontu horrekin!*

Ikusi baino gehiago entzun egiten den pizti horren izaera eta jokaera harrizkoak dira, esaten dituztenak egiak badiara, behintzat. Kuku emeak basoak arakatzen igarotzen omen du denbora, bere arrautzak non jarri, beste txoriek egingako habien bila. Besteen etxeen zelatarri alajaina; besteenari begira; zertarako eta norberaren premiatarako: *Hor baze-gok! Dagoenetik hartu behar eta ezer ez*

den tokian, eskuak garbi! Zenbat horrelako ote da munduan. Egun pare batean dozena-hamalau bat arrautza jarri han eta hemen, bukatu lanak eta, aio! Aita-amek, kukukumeak nola jaiotzen diren ez dituzte ikusiko, ez diete janik ekarriko, ez hegapeko goxoz eta berroz bilduko ez aurreneko hegaldietarako babeska eskaini. Ez baitituzte beren umeak ezagutu ere egingo.

Pentsatu hutsak ondoeza ematen du. Entzuteak poza, baina, jokabide eskasek sortzen duten egonezinaren gogoragarri ere bai.

Tira ba, ibiliko al gara mundu txiki honetan bidezkoa errespetatuz eta errespetua bidezko eginez.

Ku-ku, ku-ku! Hor al zaude?
Asteburu on.



Txokoak eta jendea Aurten ere finalera

Aiako Lardizabalgo eta Orioko Zaragueta Herri Eskolako 5. eta 6. mailako Maddi, Haizea, Miren, Ane, Itziar, Alba, Nahia, Naudar, Izaro eta Maialen entrenatzailea plaierotako finalean izango dira iaz bezala, lan asko egin ondoren. Orduan galdu egin zuten. Ea aurten irabazten duten! Larunbatean, 11:00etan hasiko da finala. Zorte on!



ARRAUN ZALEEN MUSIKA CASTRORA BISITA

Oraindik traineru denboraldia hasteko pare bat hilabete falta badira ere, garai bateko estropada ondorengoak gogoratuz aurtengoetarako gogoia piztuko zaio beharbada bati baino gehiagori.

1979an, Castroko estropadetan ateratako argazkia da honako hau. Garai hartan ere Orioko arraunzaleek estropadak non, zarata eta animoa eramaten zuten arraunlariei indarra emateko.

Argazkian alai ikus daitezke zaleak musika

joz eta kantari. Argazkian, ezkerretik hasita: Aitor Etxaniz –txindatekin–, Juan Ramon Lizarralde *Altxerri*, Juan Antonio Manterola –turutarekin–, Juan Antonio Garate, Primitivo Urbietta –atzeko betaurrekoduna–, Rafael Delgado Porrillo –Sevillakoa–, Jose Antonio Iburguren, Victor Zinkunegi –bonboarekin– eta Inaxio Unanue –eskusoinuarekin–.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: AITORETXANIZ

karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAR

943 83 05 37 / 943 83 27 47

Gabon
TABERNA
plater krechak eta pintxoak

Tfnua: 943 83 06 09

tailer mekanikoa

AUTO-LAN
C. B.

urrutira joan gabe
talde berria
zure zerbitzura

Pelotari kalea, 5 ORIO 943 83 00 34

JABIER LERTXUNDI “ETORKIZUNA ZIURTATU SAMAR ZUEN HERRIA ZEN ORIO”

Orioko Udal Kanpina, bigarren plan orokorra, arraun elkarteko hainbat konponketa... **Duela gutxi erretiratu da Orioko eliza berritzeko proiektua egin zuen arkitektoa.** Zarautzen bizi den arren, Oriorekin duen lotura mantentzen du. Bere ibilbidea eta Oriori lotutako kontuak esan dizkigu.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: IKER GURRUTXAGA ETA RIKARDO UZKUDUN

Aurten beteko ditu 70 urte Jabier Lertxundi oriotarrak, abenduaren 27an hain zuzen ere. Dena dela urte asko da familia guztia Zarautza joan zenetik. Aita zuten Andukoa eta horregatik Andu bezala ezagutzen dute Zarautzen. Hala ere,

Etxeberrin jaiotakoa da Jabier, zortzi urtez Orioko Udaleko arkitekto izan zena. **Zenbat urte daramatzazu Zarautzen?** 1958ko irailean edo urrian Oronozera joan nintzen ikasketak egitera eta urte hartako Gabonetarako Zarautza joan ginen bizitzera familia guztia. Igandeetan eta abar etortzen nintzen ni Oriora, koadrilari bisita egitera. Goiko Kalean nuen koadrila, Inazio Mari *panadero*, Joxe

Migel *alkate zaharrenekoa*, zaharxeagoak ziren Joxe Ramon *Xordo* eta Xanti *Benta*; gaztexeagoak, berriz, Antonio Alonso eta Kandido Esoain; Joxe Luis *Kallabarro*... Beheko kaletik gora bizitzera etorri zirenak ere baziren tartean: Inazio *Pakoloko* eta Martzelino *Torretxo*. Azken horren parean bizi ziren lopotegitarrak, baina haiek beheko kalekoak ziren guretzat.



Sanjuanetan sua egiten genuenok osatzen genituen koadrilak eta Olluanetik gora bizi zirenak ginen Goiko Kalekoak. Hortik behera, Pillikukoak ziren, eta beheragokoak Beheko Kalekoak.

Oronozen egin zenituen ikasketak orduan.

Laugarren batxilergoa egin nuen Oronozen, 1958an, 57ko plana-edo deituta ko haren ondorioz. Aste Santuetako oporretan etxera etorri, ikasturtea bukatu, eta handik Iruñera, Maristetara, goi mailako batxilergoa egitera. Hura bukatuta, soldadutza egitera, itsas-komandantziara, Ferrolera lehendabizi eta Madrilgo Ministeriora gero. Soldadutza bukatu eta Iruñera itzuli nintzen, Nafarroako Unibertsitatean arkitekturen ikastera.

Nolakoa zen garai hartako Orio?

Bakoitzak duen aberriaren aitortpena umetan egiten da eta hori geratzen da betiko; gainera, adierazpen hori beti oso positiboa izaten da. Belarrondoko asko jaso nituen, baita eman ere; baina guztiak ondo merezitakoak izango ziren.

Gainontzean, Orio parke handi bat zen guretzako. Toki guztietan jostatzen genuen, eta bihurrikeriak egiten abilak ginenez, alde guztietan jasotzen genituen belarrondoak. Esate baterako, Olluaneko inguruan. Haien etxe atzeko zelai zabalak berenak ziren, eta bertako aitona gure etsaia zen, trastekeria asko egiten genizkion-eta. Gaur egun umeak ez dira apenas libre ibiltzen, gurasoak izaten baitituzte beti zaindari. Gure garaian gurasoek goizean goizetik iluntzera arte ez zuten izaten egiten ari gineraren berri normalean. Bazkaltzean sartu atera bat egiten genuen etxean eta gutxi gehiago. Senide zaharrenak zaintzen zuen gazteena. Ez ukitu anai-arrebarik, belarrondokoa emateko gu geu nahiko-ak ginen.

Altzari fabrika eta aroztegi ugari zituena garai hartako Oriok; labe errefraktarioa zuten bi enpresa, 30 bapore, lauzpabost ontziola... Horrez gainera, bakoitzak bere baratzea zuen eta baserriarrak ere baziren. Etorbizuna ziurtatu samar zuen herria zen herri hura. Motondo ere herriko arrantzaleena zen, dikea egin zutenena. Han ere baratze ugari zeuden. Orain kostako legeek hartzen duten eremu guztia lantzen zuten orduan herritarrek, jatekoa ateratzeko.

Eskabetxeria 1961-62an egin zen. Felix Llanosek, falangista izanagatik ere-Gipuzkoak eman duen arkitekto onenetako batek, Oriorako lehen plan orokorra idatzi zuen. Orioko Erriberan industriagune bat eraiki nahi izan zuen hark eta garai hartakoa zen Azkue konterben enpresa.

“Sanjuanetan sua egiten genuenok osatzen genituen koadrilak eta Olluanetik gora bizi zirenak ginen Goiko Kalekoak. Hortik behera, Pillikukoak ziren, eta beheragokoak Beheko Kalekoak”

“Motondo ere herriko arrantzaleena zen, dikea egin zutenena. Han ere baratze ugari zeuden. Orain kostako legeek hartzen duten eremu guztia lantzen zuten orduan herritarrek, jatekoa ateratzeko”

“Llanosek herria bitan banatu zuen. Errepidearen alde batean bizitzeko zonaldea izango zen eta bestean industriarentzako gunea; moilari eta itsasoari lotutako industrialdea”

“Ortzaikatik Motondo ingururako zubia 1989rako egingo zutela agindu zidan Luis de los Mozosek. Horren harira, nik Orioko kaleak eta pasabideak estutu egin nituen herriko plan orokorrerako”

“Kirol portuan ere diru pila bat gastatu da, baina ezin al zuten lehen zeuden bezala erriean jarraitu aisialdirako diren ontzi horiek guztiek? Jendearentzako bestelako erakargarritasuna zuen plaia txikia kendu zuten horren mesedetan”

“Jendea erakartzeko baserri turismoa izan daiteke modu bat: Orion, esaterako, Itxaspeko hotela da horren adierazgarri. Paisaiatz gozatzeko aukera ematen duen toki atsegina baita. Gastronomia, itsas-bidaiak... oraindik zerbitzu asko dauzkagu hemen eskaintzeko eta hobetzeko”

Noiz hasi zinen Orioko Udalean arkitekto lanetan?

1981ean edo deitu zidan Joxe Mari Lizaso orduko alkateak. Ez neukan lanaldi jarrairik, ez hileko soldatarik, ez antzerako ezer. Zenbat diru kobratu nuen jakitekotan, Arrizabalagari galdetu, orduan hark eramaten zituen-eta Orioko diru kontuak. Hasiera hartan egin nituen lanen artean, Kanpina, hilerria handitzea, arraun elkarteko aldapa, hango fosoa... halakoak izan ziren.

Llanosen plana aitatu duzu.

Harena izan zen Oriorako lehen plan orokorra, harik eta nik beste bat egin nuen arte. Gerora beste hiruzpalau egin dira azken 20 urteotan. Kontua da Lurraldeko planak ere egiten direla eta herritarako egiten diren planek plan orokorrakoa den hori kontuan hartu behar dutela. Batak bestearekin izan behar du lotura nahitaez. Bitakoren bat aldatzen bada, besteari kalterik ez egiteko behar luke izan.

Llanosen planarekin errepide nagusia gaur egun Arrantzale kalea den horretan egingo zen. Handik zuzen zubi bat egin eta errepide nazionalarekin elkartuko zen. Hori horrela egin izan balitz, moila orain dagoen tokitik itsasalderago jarri beharko zen, eta ondorioz, ez zuten halakorik onartu. Gainera, aurreko planarekin, lehen aitatu dudana bezala, Muntoko gunean industriagune bat zegoen aurreikusita eta haren fruitua izan zen Azkue eskabetxeria.

Hala, Llanosek herria bitan banatu zuen. Errepidearen alde batean bizitzeko zonaldea izango zen eta bestean industriarentzako gunea; moilari eta itsasoari lotutako industrialdea.

Eta zer zuen zure planak?

Niri, esaterako, Luis de los Mozosek agindu zidan Ortzaikatik Motondo ingururako zubia 1989rako egingo zutela. Horren harira, nik Orioko kaleak eta pasabideak estutu egin nituen herriko plan orokorrerako. Agian batek edo bestek esango du pasabide estuegiak egin nituela, baina nahita estutu nituen. Toki Alai zegoeneko bihurgunea, herriko sarrerako alegia, eta inguru hori estuak horregatik dira, herri barruko errepidea egin genuelako eta ez errepide nazionala. Zergatik? Zubia egin behar zutelako eta handik bidali errepide nazionala. Behin zubi hori eginda, errepidearen arazoa konponduko litzateke.

Horrez gainera, eskatu zidaten kasketik hondartzara bidean eraikitako gunek gutxitzen joan behar zutela. Hori dela eta, txaletak egin zireneko gunek hori eta ordenatu nituen. Etxebizitza askotako eraikinak, txaletak eta hondartzan etxerik ez. Horrela ordenatu nuen Orio.



Orionasko eraiki da ordutik hona, ezta?

Hala da bai. Moila berria ere egin dute, eta geroz eta bapore gutxiago dago Orion. Barra berria ere egin zen, baina horrela eraiki beharra al zegoen? Aurretik ere bazen barra egiteko asmoa, baina desberdin, zuzen, bueltarik eman gabe. Moila zuten herri guztietan egin ziren itsasorako sarrerak hobetzeko obrak. Orion, esaterako, hiru mutur jarri ziren olatuen eta korronteen abiadura murrizteko, gaur kofradia berria eginda dagoen tokian. Kontua da Orioko moila indartu nahi izan zela garai hartan, baina izatez dagoen moilarik onena Getaria-koa da eta hor ez dago zalantzarik.

Kirol portuan ere diru pila bat gastatu da, baina ezin al zuten lehen zeuden bezala erriean jarraitu aisialdirako diren ontzi horiek guztiek? Jendearentzako bestelako erakargarritasuna zuen *plaia txikia* kendu zuten horren mesedetan.

Herri turistikoa da Orio, ordea.

Plaia txikia nik plana egin nuenerako lokatzez beteta zegoen, ez zeukan umetan ezagutu nuenaren inolako antzik. Bertan igerileku naturala egiteko nahia izan genuen. Horretarako, Tenerifera joan ginen, Puerto de la Cruz herrira. Han Martiñezeko igerileku naturalak ikusi genituen, gero Orion antzeko zer bait egin ahal izateko. Marearekin ura berri-tuko zen igerilekua egin nahi genuen. Hodi baten bidez itsasotik ura hartuko zuen igerilekua, erriotik hartuta zikina hartzeko arriskua baitzegoen.

Kanpina ere kritikatu izan zen, herri-ri dirurik utziko ez zuen jendea etorriko zela-eta. Gaur egun kanpinaren inguruko etxeetan bizi diren askok baino bizi gehiago eman dio kanpinak Oriori. Gainera, kanpinaren kalitatea kaskartu egin da, etxe atzeko baratzea dirudi pareko etxeak eraiki dituztenetik.

Autopistak ez al du kaltetzen Orioko paisaia?

1953ko urrian Motondoko dikea hautsi eta ur gazia sartu zen. Ondorioz, lur haiek ez zuten laborantzarako balio. Baina bertako jabeek, Elosegí familiakoe-ek, ez zuten saltzeko beharrik izan eta bere hartan geratu zen. Autopista egiteko garaian gaur egungo ibilbidearen orde-zko bide bat aurkeztu zuen Aldundiak. Ordezko ibilbidean, Zarauztik gaur egun Azkunerren zementu fabrika den tokira, handik Jauritara, eta, han azpitik pasata, Motondotik barrena joaten zen autopista erriorearen beste aldera. Han elkartzen zen gaur egungo ibilbidearekin. Laburragoa izateaz gainera, ez zuen kostaldea zapaltzen modu horretara. Europistasek egin behar zituen lanak eta Aldundiak ibilbidea aldatzeko gogor egin zuen lan. Hala, Orioko eta Zarauzko al-

katearen sinadurak behar zituztela esan zieten eta, horretarako, bilera bat antolatu zuten Madrilén. Bilera horretara Zarauzko alkaterik ez zen agertu, askok falangisten aurkako erabakia zela esan zuen arren. Arrazoirik ez dakigu, baina horren ondorioz pasatzen da gaur egun dagoen tokitik A8 autopista. Egindakoa eginga dago eta orain, hainbeste urte pasa direnean, bueltan jaso du autopista Aldundiak, eta 10 urtean sekulako zorra pilatu du Bidegik. Nola da posible? AI-ean diru gehiegi gastatu delako? Aurretik 30 urtean autopista ordaindu eta diru asko irabazi zuten Europistas enpresakoeak.

Nola ikusten duzu Orio Zarauztik?

Oriori panorama txarra ikusten diot, baina ikuspegi orokorrean besteak bezalaxe dago Orio. Zer egin dezake Oriok hortik ihes egiteko? Industrialde txiki bat? Horrekin ez dago ezer egiterik. Oriok diru-sarrerak izateko turismoan egin behar du ahalegina. Industria batzuk ongi joango dira, baina Oriok ez du halakorik. Herriarrentzat beharrezkoak izango diren? Bai, baina turismoak du benetako garrantzia. Gustatu ala ez, Europaren zahar-etxea eta festarako tokia da hau, Espainia bezalaxe. Lehen herri turistikoa zen eta etorkizunean ere izan beharko du. Kanpotarrak etorri daitezela, eta utzi dezatela behar dugun dirua. Herri arrantzalea izan behar duela? Ahal dela eutsi diezaiogun horri, baina geroz eta zailagoa izango da arrantza sektorea bizirik mantentzea. Hemen paisaia da erakargarria eta horri probetxua ateratzen jakin beharra dago. Hori bai, turismoaz bizi nahi badugu, Europan ere gauzek ongi joan beharko dute. Gure turistak europarrak dira. Jendea erakartzeko baserri turismoa izan daiteke modu bat: Orion, esaterako, Itxaspeko hotela da horren adierazgarri. Paisaiatz gozatzeko aukera ematen duen toki atsegina baita. Gastronomia, itsas-bidaia... oraindik zerbiztu asko dauzkagu hemen eskaintzeko eta hobetzeko.

Erretiratu aurreko lana Orion egin zenuen, ezta?

Nire azken lana Orioko eliza izan zen. Garrantzitsua izan zen niretzat. Eskerrak eman zizkidan apaizak, baina niretzako ohore bat izan zen lan horrekin bukatzea nire ibilbide profesionala. Itxaspeko harriarekin egin genuen lana bertan, itsusia izan ala ez, Orioko. Orain ostiralero etortzen naiz Oriora afaltzera. Apaizarekin, esaterako, harreman estua dut. Oriotarra naiz, eta, esaten ez badut ere, beti izango da gogoraraziko didanen bat inguruan.

Aske Gunea

Aurpegia estalita zeramaten dozenaka lagunek kalteak eragin zituzten Donostia-ko Bulebarrean apirilaren 19an. Ertzainak ziren. Espainiako Audientzia Nazionalaren agindua bete behar zuten; Segikoak izateagatik zigortutako sei gazteak atxilotu. Mila laguneko herri harresia aurkitu zuten bertan. Giza adreiluak banaka kendu behar izan zituzten atzean zeuden sei gazteak Espainiari entregatzeko. Sei urteko kartzela zigorra. Ondo kostatako atxilotetak izan baziren ere, Ertzaintzak zintzo bete zuten agindua.

Atxiloketen ostean Berria egunkariak hainbat gazte erakundetako ordezkarien erreakzioak jaso zituen:

Alain Coloma -PSE-EEko gazteria-: *...ezin duela inork espetxeratua izan erakunde politiko batean parte hartzeagatik soilik... Espainiar Estatuari esango nioke... alderdien legea adostu genuenean... ETArekin amaitzea zela helburua eta ez guztia ETArekin lotzea.*

Gotzon Elizburu -Ernai-: *...gonbida-pena egin zitzaien EA Jri bake prozesuan urratsak emanez herri harresian parte hartzeko, eta Ertzaintza ez bidaltzeko eskatu zitzaien. Azken finean, Auzitegi Nazionaletik zetorren agindu hori... Jendea kolpeka, iletik tiraka atera zuten... Ertzaintzaren jarrera erabat salagarria da eta Urkullu jaunak lotsatuta egon beharko luke Donostian ikusitako arekin.*

Koldo Bilbao -EGI-: *Guk uste dugu erakunde politiko batean parte hartzeagatik inor ezin dela zigortu... Segiko kide izateagatik bakkurrik epaitzeak ez duela zentzurik, beste gauza batzuk frogatuko balira ulertzenkoa izango litzateke, baina ez da frogatu.*



Bulebarreko Aske Gunea arnas gunea izan da. Amets gunea. Esateko eta izateko gunea

Beraz ez du zentzurik... Ertzaintzak bere lana egin du.

Hiru ordezkarien ustez zentzugabeheria hutsa da inor atxilotzea erakunde politiko batean parte hartzeagatik. Kasu honetan Segiko kide izateagatik. Horretan ados gaude. Eta zer egin behar dugu? Onartu? Isilik egon? *Betikoak dira* esan?

Ertzaintzari eskerrak eman gomazko pilotakez botatzeagatik? Gazteak ostikoka, bultzaka eta arrastaka ateratzeagatik? Lerro hauek irakurtzerako atxilotuetako neska bakarra, Nahikari Otaegi kartzelan egongo da bere zazpi hilabeteko alabarrekin. Eta hiru urteko semea etxean.

Bulebarreko Aske Gunea arnas gunea izan da. Amets gunea. Esateko eta izateko gunea. Badugu askatzeko gunea. Noiz askatzeko unea?

Gu ere gertatutakoaren parte gara. Oriotarrak eta aiarrak ere izan ginen Bulebarrean. Batzuek lanean eta besteak lanak ematen. Batzuek aurpegia estalita eta besteak aurpegia ematen.

24 OREKO ERREAKTIBAZIOA

IGLESIAS SARRAILAGILEAK
WWW.IGLESIASCERRALJEROS.COM

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascerrajerros@igohoo.es
2010 ORO

Faroeko bakailaoa daukagu

ITSAS MENDI

gutizlak

Euzko Gudari, 5 Tel: 943 24 87 74 Oro

PIZZERIA KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

uranga
autozerbitzua

Aliprox

Euzko Gudari Kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75

ITZALA

kartetas jokatzeko proposa

tel. 943 83 12 59

INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

KAIUA

Plater konbinatuak, bokatak, hamburgesak...

ANBARO PONTUA 35, BEHEA TEL: 943 940 050

gizarte kutxa

Ametsak

Bizitza zer den galdetzen badugu ez da erraza erantzutea, denboraren poderioz ematen baitzaio esanahia, zuzendari batek film bati izenburua jartzen dion moduan.

Bizitzan ez daukagu zertan beti milimetro bakoitza neurtuz ibili beharrik, ezta marmarra bakarrik entzunez bizi ere. Alperrikako zauriak egitea besterik ez dugu lortzen. Bizitzan ere hainbat eta hainbat ziabogekin topo egiten dugu, baina orduan ere arrauna apurtu ala ez apurtu, handik eta hemendik mugituz, beti dago irteteko aukera.

Amesteko beldur garen mundu honetan, ilusioa konplize hartuz, aurrera egin beharra dago. Une batean geratuz, ingurura begiratu beharrik ez dago nola bazterrak ilunez estaltzen ari diren ikusteko. Ezin dugu beldurrez bizi, sentitu, arnastu, horretarako egunero itsasoak ekartzen dizkigun kemenez betetako olatu txikienak ere, mezu positibotzat hartu behar ditugu. Bada garaia ilusiorik gabeko aparra alde batera uzteko

Eta ze hobeto momentu horietatik ateratzeko amestea baino. Nik dakidala inork ez digu inoiz esan ezin dugunik amesten jarraitu, edo zuei bai? Zergatik orduan ume izateari uzten diogunean, amesteari ere adio esaten diogu?

Amesteko beldur garen mundu honetan, ilusioa konplize hartuz, aurrera egin beharra dago. Une batean geratuz, ingurura begiratu beharrik ez dago nola bazterrak ilunez estaltzen ari diren ikusteko. Ezin dugu beldurrez bizi, sentitu, arnastu; horretarako egunero itsasoak ekartzen dizkigun kemenez betetako olatu txikienak ere, mezu positibotzat hartu behar ditugu. Bada garaia ilusiorik gabeko aparra alde batera uzteko.

Bakoitzak bere denbora hartu behar du, begiak itxi, segundo batzuetan pentsatu eta seguruenik ttak! hortxe azalduko da zure betiko amets hori. Zergatik ez? Denok ditugu bete gabeko ametsak eta berdin du zein den adina. Zer dauka ba txarra amets ez hitz egiteak? Eta ingurukoekin partekatzeak?

Baina hori bai, amestearekin bakarrik ez dugu ezer egiten; borrokatu egin behar da nahi dugun hori lortzeko, nahiz eta batzuetan utopikoak, fikziozkoak edo barregarriak irudit. Hori bai, errealitate eta objektibitatearekin eginez gero seguru izan posibilitate gehiago izango ditugula.

Pentsatzen jarrita... haurren bakarriketa baino gauza ederragorik? Eta lagun ikusezinen eta bien arteko sekretuak? Eta kapa bizkarrean hartu eta munduaren salbatzaile sentitzea?

Umeak heldua du heroitzat, eta helduak umeen kemenaz eta ausardiaz amesten du. Helduei amets ez galdetuz gero lehenengo erantzuna askotan ezezkoa da: *nik ez dut ametsik!* Baina hori ez da guztiz egia. Pertsona bat ametsik gabe, mezurik gabeko postala bezalako da.

Lehorteak euri tantak hartzen dituen moduan, egunen batean norberak bere ametsak besarkatuko dituelakoan, luzatu eskua ametsi!

Zuk zergatik ez?

Azken aldian ugariak eta batez ere nabar-menak dira atez atekoaren aurkako protestak; nork ez ditu ikusi zabor poltsak balkoietan zintzilik? Deigarria bada behintzat...

Nire honetan, gaur egun dagoen eztabaidarekin apurtu nahi nuke; atez atekoa edo bosgarren edukiontzia. Gure herrian erdibide bat proposatu da eta behar bezala funtzionatzeko denon aldetik jarri behar dugu, bestela alperrik ari gara. Inposaketa ez da bidea, ez, baina benetan amarratzen nau Orion birziklatzeko ditugun aukerak ikusi eta jendeak oraindik kasurik ez egitea, eta ez konturatu izana atez atekoa ez bada nahi, behintzat orain dugun sistema garatu dezakegula, baina denon artean.

Ez dut denborarik, ezta lekurik ere, zikina da... Zakurrak kalean uzten duten kaka ere zikina da, baina etxetik kanpo egiten duten bitartean ez du enbarazurik sortzen... Nik uste batzuek zaborrarekin ere pentsaera berdina dutela, utzikeria eta axolagabekeria galanta!

Guk sortzen dugun zaborra, guk bideratu behar dugu, norberaren ardura da. Ezin dugu galdu gaur egun Orion dugun aukera. Orain gainera auzokonposta guneak eraikitzen ari gara denon eskura egoteko. Zer gehiago egin behar dugu?

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 • ORIO 943 53 64 94 • 697 23 86 56
[Sarrera Arrantzale kaleak] libegarmendia@gmail.com

Maidar Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

URAITZ
burdindegia
jantzi-agarriak

Enlata, 3 - Tfwn: 943 83 18 97

URANGA
 burdindegia
 Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
 Telefax: 943 832 36 Eusko Gudari, 5

tel/fax: 943 89 00 69
 Biltzaia kalea, 4 - 20.000 ZARAUTZ

URBIDE s.l.

ITURGINTZA, BEROGINTZA
 GASA, BAINU ERAKUSKETA

Presupuestuak, karguak, zerbitzuak...

XABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezain automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

☎ 943 83 17 74

Arantzale, 31 - 20810 ORIO

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak:
 - Arrain zopa
 - Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/
 943 13 25 32

FISIOTERAPIA Garkitz Aristei eta Natalia Wierzen
 NUTRIZONISTA Garbife Alzuru

sinergia investigacion
 fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

Zaragueta
 Herri Eskola *Orio*

telefonoa: 943 89 40 52
 e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

ASADOR
XIXARIO

Eusko Gudarien Kalea, 2
 Tel: 943 800 019 - ORIO

943 572 870

KOASTA

Wifi zerbitzua
 Kopak, gau giro aparte...

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfwnor: 943 83 59 00

Orioko
Herri
Ikastola

Guraso Kooperatiba
 ABESLARI KALEA, 8
 TEL: 943 83 47 04
 FAX: 943 13 09 38
 orio@ikastola.net
 www.oriokoikastola.net

Sagasti
LEIHOAK

OBERTO SAGASTI
 f / fax: 943 13 00 77
 sagastileihoak@telefonica.net
 Arantzale kalea, 65
 0810 Orio (Gipuzkoa)

TANATORIO ZARAUTZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldioroko zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroiak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz
 Tel: 943 89 49 37 / Fax: 943 89 49 41
 e-mail: haterespil@haterespil.net

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
 Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txekorra, txorizo, krokettek...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

KOLON TXIKI
burdindegia
jantzi-agarriak

Herriko Enparantza, 4
ORIO
 Tel. 943 83 00 44

Portu
ERRETEGIA

Santo Ereka Aldean, 44
 943 89 11 34
 20809 AIA-ORIO

burdindegia
jantzi-agarriak

Gaia emanda Irakurzaletasuna

Apirilaren 23an izan zen Liburuaren nazioarteko eguna eta liburuak lan tresna dituztenengana jo dugu honako galderarekin: **Liburu asko irakurtzen al dugu?**

Liburuekin konektatu deskonektatzeko

Hilabete honetan, 23an, hain zuzen ere, liburuaren eguna ospatu da. Hori dela-eta, Orioko liburutegian irakurtzen diren liburuen inuruko azterketa egingo dut.

Umeen liburuei dagokionez, gehien irakurtzen diren ipuinak euskarazkoak dira, batik bat etxeko txikienei zuzendutakoak.

Helduen kasuan, gaztelaniazko nobelek dute arrakastarik handiena, batez ere, argitaratu berri direnek. Nobela horiek normalean arinak izaten dira, baliteke bizi dugun egoera ikusita, arazoetatik ihes egiteko irakurri nahi izatea jendeak. Hori dela-eta, normalean, *best seller*-ak ekartzen ditugu, baina beste mota bateko nobelak ere izaten ditugu, bazkideen nahiak bete ahal izateko.

Irakurlearen perfilari begira, 30 urtetik gorako emakumeak izaten dira gaztelaniaz

Mailegu kopurua aztertuz gero, azken urteotan igoera nabarmena izan da. Une honetan, aldiz, e-book-a dela-eta, bazkide batzuk galdu ditugu

gehien irakurtzen dutenak. Euskaraz irakurtzen dutenak gazteagoak dira.

Literaturaz gain, badira beste gai batzuk arrakasta izaten dutenak: sukaldaritza, psikologia eta bidaia gidak. Pentsak ere arrakasta handia izaten du, hala ere, jaso izan ditugu keak, eskaintza urria dugula esanez. Entziklopediak gero eta gutxiago erabiltzen dira, izan ere, informazio hori begiratu ahal izateko, Internetera jotzen dute ikasleek.

2012an gehien irakurri ziren gaztelaniazko eleberririk *En el país de la nube blanca*, *El tiempo entre costuras* eta *Dime quien soy* izan dira; euskaraz, *Plazer bat izan duk*, *Benito*, *Amaren eskuak* eta *Twist*.

Ipuinei dagokionez, *Kroko eta lagunak*, *Pupu eta Lore* eta *Katalin udan* euskaraz. Gaztelaniaz, berriz, *Tea Stilton*-en liburuek izan dute arrakastarik gehien.

Mailegu kopurua aztertuz gero, azken urteotan igoera nabarmena izan da. Une honetan, aldiz, *e-book*-a dela-eta, bazkide batzuk galdu ditugu. Bestalde, krisiaren eraginez, orain arte liburuak erosteko ohitura zutenek, liburutegitik hartzen dituzte eta horri esker, mailegu kopuru iraunkorra lortu dugu.

Amaitzeko, murrizketak liburutegiraino heldu direla esan behar dut eta garai hobeak iritsi direlakoan nago.

Miren Andueza
Liburuzaina

Liburua noiznahi, nonahi... nahierara

Liburuaren egunaren harira eta irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz, hainbat ekitaldi antolatzen da herri askotan; hala izan bedi, haurrerengan baino gazte eta helduengan eragina izan dezan. Hori diot, tarte horretan etendura nabarmena gertatzen baita irakurzaletasunean. Haurrek pozarren hartu eta irakurtzen dituzte liburuak edo guraso nahiz anai-arrebei irakurtarazi txiki-txikiak direnean, nire etxeko bikotea horren lekuko. Haur izatetik nerabe-heldu izateko kokxa horretan dago etena antza, txiki-txikitako grina adinean aurrera egin ahala galtzen baitoa. Patxi Zubizarretak dio: *haur eta gazteei etengabe aipatzen eta goraitatzen zaizkie irakur-*

Gurasook ere telezaborra ikusi beharrean liburu on baten orrialdeetan murgilduko bagina, gure seme-alabei zaletasuna kutsatuz, irakurle oparoagoak izango lirateke, bai noski!

tzearen onurak, baina inor gutxik irakurtzen du eta ezin diegu dastarazi guri kontrako eztarritik joaten zaizkigun letrazko jakiak. Gurasoek, irakasleek, liburuzainek, liburu saltzaileek –nik gaineratua– irakurtzen ez badute –batzuetan idazleek ere gehiegi ez–, nola kutsatuko diegu sukar plazerezkoa den irakurzaletasuna?

Hara hor etenaren kokxa: onurak azaldu bai baina, aukeran utzi beharrean, liburu jakin bat irakurtzera eta gero lana egitera derrigortu. Leticia Grandes, psikopedagogo, irakasle eta Galtzagorriko kideak garbi du: *nahi dutena irakurtzen uzten diet, ez*

diet ezer inposatzen. Gainera, istorioak ozen irakurtzen dizkiet, entzun ditzaten, liburu bat irakurtzeak ez delako esan nahi gero horri buruzko fitxa bete edo lana egin beharko dutenik. Gurasook ere telezaborra ikusi beharrean liburu on baten orrialdeetan murgilduko bagina, gure seme-alabei zaletasuna kutsatuz, irakurle oparoagoak izango lirateke, bai noski!

Dena den, egiari zor, badira hari fin hori eteten uzten ez duten gazteak, liburu plazer dutenak, liburu informazio-iturri komunikabide handimandien manipulazioaren aurrean, liburu fikzioa baino gehiago baita: gizartea, politika, ekonomia... Gora zuek! Eta irakurketa on, guztioi!

Karlos Mintegi
Elkarreko langilea



Kiroldegira joan zirenen gozamenerako, ederki uztartu zituzten bertsoa eta dantza bost dantzariak. KARKARA

Dantzari hitzak jarrita, gorputz-espresioa armonian

Kritika Errimak oinetan

Dantzariak: Haatik konpainia.

Kiroldegira sartu eta berehala goxotasuna. Kiroldegi handia areto koxkor bilakatu, eszenatokia ikuslearengandik gertu, bost aulki eta mikro bat. Lehen begiratuan, bertso saio bat.

Ikuskizuna hasteko oso ezaguna egin zen *Bertsoka bertsoka* sintoniaren zirrara eta bost *dantzari-bertsolariak* dantzan sartu ziren eszenatokia, natural oso. Euren aulkietan eseri eta bertso-

dantza saioaren hasiera, eta noski, bakoitzak bere agurra.

Hortik aurrera, ikuslearen begi zein belarriak bereganatu zituzten protagonistek. Dantzatzeke erabiltzen zituzten bertsoen letrak eta dantzarien gorputz-espresioa etengabeko armonian.

Txalotzekoa dantzarien gorputz espresioa, dantza eta bertsoa uztarri berean lotuta ikusgarria ikuslearengan eragiten zuen sentazioa, gorputzaren mugimenduak bertsoaren letrari ematen zion esanahia eta alderantziz.

Dantzatzeke moduak esanahi bat zuen, pauso bakoitza hitz bat izango balitz bezala, errima bat balitz bezala.

Ikuslea erabat ikuskizunean murgilduta, zentzumen guztiak erne, sentimenduak loretan, orain bero, gero hunkituta, mugimendu bakoitzari arretaz begira eta tartean barre algarak ere bai, aulki zein ur botilen jolasei esker.

Bukaera ere gertu, hau ere ezin hobea, Gu ta Gutarrak-en pupurriaren interpretazio bikaina eta amaieran ikuslea eta dantzariak kantari.

Bertsoa eta dantza uztartzea lortu duten emankizun gustagarria *Errimak Oinetan ikus-entzukizuna*. Bejondeizueta eta luzaroan jarrai dezatela errimek oinetan.

[E. SAIZAR ETA I. BARRENETXEA]

Ikasleak idazle
Asier Zubizarreta

Antilla hondartza

Orioko hondartza asko aldatu da. Lehen marea asko igotzen zen, baita jaitsi ere; hondarra garbia zegoen, itsasoak garbiketa lana egiten baitzuen. Baina olatu eta korronte handiak sortzen zirela-eta, *kanpoko muturra* jarri zuten, eta horren ondorioz, itsasoak ezin du bere lana ondo bete.

Orain marea ez da lehen bezala igotzen, ez da jaisten ere.



Hondarra beharrean, harriak gero eta gehiago daude eta dagoen

harea zikin zikina dago. Nik Antillako hondartza horrela ikustea ez dut batere gustuko, horrela jarraitzen badugu, ezin izango dugu gure hondartzaz gozatu.

Hasi beharko dugu natura errespetatzen; nik behintzat, nire esku dagoena egingo dut.

Nik Antillako hondartza horrela ikustea ez dut batere gustuko, horrela jarraitzen badugu, ezin izango dugu gure hondartzaz gozatu

Ille agintegia
MARIJO
Neska eta mutilentzat
Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

MIRANDA
tarima, ate, leiho, eskalera...
behar diren arretz lanak
egingo ditugu
Udalaneta bidex. 1 +649 42 32 70- ZARAUTZ

Bidalit ezazu zure albistea!
ZUZENEAN!!!
karkara.COM

» HANDIK ETA HEMENDIK



Xehetasunetan arreta handia jartzen zuen. Gustura egoten zen hemen Pietatea nola lantzen nuen ikusten. Niretzat ohorea izan zen Oteizarekin elkarlanean proiektua egitea».

Martin Perona, arotza, Urola Kostako Hitza, 2013-04-11.

“Motondoko hezegunea angulenzako tripa-festa bihurtuko da. Ingurua elikagaiz bete eta angula kopurua ere asko haziko da».

Marko Sierra, Aranzadi elkarteko nekazaritzako ingeniaria, El Diario Vasco, 2013-04-21.

» OSPAKIZUNA



Udaberriko bataioak

Udaberriarekin batera kristautasunera loratu dira Orioko hainbat ume. Apirilaren 14an izan ziren azken bataioak eta, argazkian ikusi daitekeen bezala, hamar ume bataiatu ziren Orioko Bariko San Nikolasen elizan. Gurasoak pozik ikusi daitezke argazkian elizkizuna bukatutakoan egiten den argazkian. Ondoren ere pozik eta gustura ibili ziren haurrak zimitorioan bataiatuen familiakoak bota zituztenak jasotzen.

» ZORIONAK!

Joseba Brit Elolari

Amerikako Estatu Batuetako Portland hirian bizi da gaur egun Joseba Brit oriotarra. Iaz joan zen Oregoneko hiriburura eta bertan osatu zuen *Next stop Greenland* pelikularen soinu banda.

Aurreko astean Bartzelonan egin zuten *BCN Sport Film* nazioarteko zinema jaialdian, abentura kiroleko film onenaren saria lortu zuen *Next stop Greenland*-ek eta horren zati ere bada Joseba Brit.

Joan aurretik Bilbo Hiria lehiaketan finalera iritsi zen Giranice taldearekin; orain, berriz, aipatutako saria eskuratu du pelikula egin duen lan-taldearekin batera. Zorionak Josebari. Segi deza la hain fin musika munduan!

Jaso berrietzako behar duzun guztia

Jostamendi *Teikiak*

Bestero txartelarekin eskuko abentak

Haur kotxeak, paseoko aukiak, sehaskak, tronak, autorako aukiak...

Gipuzkoako erakusketarik zabalena 500 m²-an

maiztean amabesunaren kiabeser

-315

Easo, 51 - DONOSTIA - 943 470 244
www.jostamendi.com

Udarako udalekuak prestatzen ari gara: kirola, ingelesa, informatika, errefortzu klaseak...

Atera etekina udarari eta animatu zaitez!!!

Uztailean, goizero, 9:00etatik 13:00etara

Matrikulatzeko: apirilak 29 eta 30, eta maiatzak 2, 18:00etatik 20:00etara

IXARRA KALEA 7, 1.C
688 860 763 - 635 338 370

PARTI AKADEMIA



Goian, Inaxi, Florentino, aita Luis Treku eta Rafaelita; eta behean, Martxiel eta Mari Carmen Genova. FAUSTINA AGIRRE

» JAIOTAKOAK

■ Irune Mugika Diez, Orion, apirilaren 2an.

» EZKONDUTAKOAK

■ Miguel Garcia Nogales eta Jhomara Gabriela Moncada Espinoza, Orion, apirilaren 6an.

» HILDAKOAK

■ Ez da hildakorik egon.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**

Genovatarrak 1936ko gerran

Oroimenaren kutxa

Gerra 1936ko uztailearen 18an hasi zenean, Rafaela Genova Luis Trekuren alabak 9 urte zituen. Uda hartan, Francoren tropak Orion sartu baino lehen, familia osoak ospa egin zuen Iparraldera, Talai Mendi baporean. Gurasoak lau seme-alabekin: Inaxi, Florentino, Rafaela eta Martxiel. Oraindik gogoan du Rafaelak: el arca de Noé ematen zuen baporeak, Zakillaneko ikuluko txerria eta oiloak han sartuta. Animalia bakarra ere ez zen iritsi, olatu batek eramanda kubiartatik denak arrastan. San Juan de Luzen soto bate-

an egon ginen; sareen gainean egiten genuen lo. Gero, trenez Bartzelonara joan ginen.


Bartzelona Errepublikaren eskuetan zegoen, artean ez zen bonbardaketarik. *Hotel batean egon ginen, gero handik Montserrateko balneariora eraman gintuzten. Han, 1937-07-14an Mari Carmen jaio zen.* Jaiolekuaren omenez, urte batzuetara Montserrat izena eman zioten Orion egindako barkuari. Mari Carmen berriz katalana deitzen diote.

1938ko neguan, bonbardaketak hasita, Frantzia aldera abiatu ginen. Trena jarri zuten, gainezka zihoan; gu ez ginen sartu, amak beldurra zuen: 'sartu zazpi sartuko gara, baina atera zenbat?' Asmatu egin zuen, trena bonbardatu eta jende asko hil zen. Bi-

dai gogorra izan zen: hotzez eta abioien bonbardaketen beldurrez, lo ahal zuten lekuan egiten zutela. Bidean galdu egin ziren, aita alde batetik, Florentino bestetik, eta ama lau umerekin bestetik. Florentino Grenobleko ospitale batean hartu zuten. Amaumeak Nizatik gertu egon ziren, errefuxiatuen kanpaleku batean. Gerra bukatuta, 1939ko udan, etxera itzuli ziren trenez. Aita ere bai bere aldetik. Florentino Grenoblen geratu zen.

Hilabete batzuetara, ama Orioko estazioan zela, trena Donostia aldetik etorrita, zein jaitsiko eta Florentino! Aspaldiko partez, besarkatu eta elkarrekin etxeratu ziren.

¡IÑAKI ITURAIN!





KARKARA

“Potentziako elektronikan hiru enpresa bakarrik daude Euskal Herrian”

Mikel Rodrigo

CAF Power enpresako ingeniaria

Trenak ahalik eta energia gutxien gastatzeko ahaleginetan ari da CAF Power enpresa. Katenariarik gabeko tranbia izan da Beasaingo tren konpainiaren azken berrikuntza. Egiten duten lanaren nondik norakoak azaldu dizkigu Mikel Rodrigok.

IKER GURRUTXAGA

Mikel Rodrigo, Orion, 1981ean jaio zen. Ikasketetan urte askotan buru-belarri jardun eta gero, 5 urte daramatza ingeniari lanetan.

Zer ikasi duzu zauden tokian egoteko?

Ingeniaritzako bi espezialitate egin nituen Nafarroako Unibertsitateak Donostian duen campusean: industrialia eta elektronika. Hori bukatuta, karrera bukaerako proiektua Errenteriako Niessenengin nuen.

Hortik lan mundura egin zenuen salto.

Behin ikasketak amaituta, Itziargoko *Spy-*

cer Aira Cardan enpresan hasi nintzen. Autoziorako transmisioak egiten genituen han: 4x4enak, banaketarako kamioi txikiak... Krisia gainera zeterrean, 2008 bukaeran, orduan *Trainelec* izena zuen enpresak berengana joateko aukera eman zidan. Gaur bertan segitzen dut, baina *CAF Power* du izena.

Zer egiten duzue bertan?

Potentziako elektronikan egiten dugu lan eta Euskal Herrian hiru enpresa bakarrik aritzen dira horretan: *Ingeteam* –Bizkaian–, *Jema* –Irizarrek erosi berria, Lasarten– eta *CAF Power*. Gu ingeniariaren atal horren barruan, trenen

trakzioan eta akumulazio energetikoko sistemak lantzen aritzen gara. Trenen atal elektrikoan, alegia. Azkenean, kable batetik argindarra hartu eta trena mugitzea da gure lana. Horrela esanda erraza dirudi, *Scalextric* baten antzeko zerbeit, baina oso mundu konplexua da.

Zein izan da zuen azken lana?

Efizientzia energetikoa eta poluzio bisuala gutxitzea dira bezeroek gaur egun gehien eskatzen dituzten helburuak. Katenaria –trenak argindarra hartzeko bide guztian goitik daraman kablea– gabeko tranbia eskatzen zuten eta horretarako bi modu ikusi ditugu. Batetik, trenbidearen bi errailez gainera hirugarren bat jarri eta handik eramanez zitekeen elektrizitatea. Baina gaur egun efizientzia elektrikoa eskatzen dute eta, horren ondorioz, bigarren sistema bat garatu dugu. Motor elektrikoek bi funtzio izan ditzakete: batetik motor bezala funtzionatzeko aukera dute, eta, bestetik, energia-sorgailu bezala. Bigarren funtzioa tranbiak frenatzen duenean egiten du. Balaztatzean sortzen den energia hori orain arte erresistentzia batzuetan erretzen zuten tranbiek, baina orain sortu dugun sistemaren bidez, superkondentsadoreetan jasotzen dugu motorrak sortutako energia.

Zein da horren helburua?

Bada, bi aukera ematen ditu. Bata, katenaria duten tren eta tranbietan energia aurrezte da, eta, bestea, katenariarik ez dagoen tokietan trena edo tranbia lekuz mugitzea. Ez du distantzia luzeetarako balio, baina gaur egun Sevillan, esaterako, tranbian erabiltzen dugu sistema hori. Zaragozan ere badaukagu. Han, gainera, berrikuntza bat gehitu diogu. Trenak geldialdiak egiten dituen tokian hartzen du energia eta horrela mugitzen da batetik bestera.

Lan asko al duzue aurrera begira?

Bai, momentuz bi proiektu garrantzitsu ditugu egiteko. Horietako batean, Cuiaiban –Brasilen– energia aurreztuko duen tranbia jarriko dugu martxan datorren urterako. Sistema horri esker tranbiak %25-30 artean aurrezten du erabilitako elektrizitatea. Bigarrena, berriz, Taiwaneko Kaohsiung-en, kablerik gabeko tranbia jarriko dugu. Hogeitasegundoan trenak behar duen energia hartzeko gaitasuna izan beharko du geltokietan.

Lan talde handia izango zarete, ezta?

Gaur egun 120 inguru lagun gabilta lanean CAF Powerren, tartean, Andoni Lertxundi oriotarra. Ideia bat egiteko, gauden langileetatik 80 inguru gara ingeniariak, 25 inguru beste alorretako lizentziatuak eta 15 lagun aritzen dira muntaia lanetan. Asko pentsatu beharreko lana, alegia.

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Saltzeko

■ Etxebizitza berria salgai Aian. Hiru logela, bi bainu-gela eta garajea. Tf.: 629 680 410.

Alokatzeko

■ Bi logelako etxebizitza alokagai Abaromendin, garajea barne. 70 metro koadro inguru. 650 euro. Tf.: 688 617 606
 ■ Arrantzale kalean, anbulatorio alboan, garaje irekia alokagai. 50 euro-tan. Tf.: 697 786 482

Laneskaera

■ Udarako lan bila nabil, astelehenetik ostiralera. Umeak zaintzen aritua. Tf.: 697 826 689 (Itziar)
 ■ Edozein lan egiteko prest. 10:00etatik aurrera.

Tf.: 666 116 641 (Nubis Rodriguez)
 ■ Goizetan edozein lan egiteko prest. Esperientzia zabala dut umeak zaintzen, garbiketan eta sukaldetan. Tf.: 661 231 109.
 ■ Emakumea prest etxeko lanetarako, zaharrak edo umeak zaintzeko eta antzeko lanetarako. Tf.: 649 228 787.

■ Erreferentzia onak, esperientzia eta paperak legeztatuta dituen emakume arduratsua lan bila. Barnean zein kanpoan bizi izateko prest. Ostalaritzan lan egin dut. Tf.: 617 789 397.
 ■ 2. batxilergoko ikasleak klase partikularrik eman-go lizkioke behar duenari. Tf.: 689 301 296 (Ainara).

Lan eskaintza

■ Emakumea behar dugu haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tf.: 650 495 160 (Iñaki)

Erosteko

■ Lur zati bat erosiko nuke Aia, Orio edo Zarautz inguruan. Borda baldin badauka hobe. Tf.: 615 790 965

Bestelakoak

■ Astelehenetik ostiralera Oriotik Hernanira joaten naiz autoz 07:30ean atera. Usurbil eta Errekalde-tek pasatzen naiz. Norbait-ek autoa partekatu nahiko balu biltzen garenon artean banatu genitzake gasolina gastuak. adurcampo@yahoo.es

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
26	05:26 eta 17:47	11:32 eta 23:53	
27	06:09 eta 18:29	12:14 eta _____	
28	06:54 eta 19:14	00:38 eta 12:58	
29	07:41 eta 20:02	01:25 eta 13:45	
30	08:33 eta 20:57	02:16 eta 14:37	
01	09:33 eta 21:59	03:13 eta 15:35	
02	10:44 eta 23:13	04:18 eta 16:43	
03	12:03 eta _____	05:33 eta 18:00	
04	00:33 eta 13:20	06:49 eta 19:15	
05	01:45 eta 14:24	07:57 eta 20:20	
06	02:46 eta 15:16	08:53 eta 21:13	
07	03:36 eta 16:00	09:39 eta 21:58	
08	04:19 eta 16:39	10:19 eta 22:38	
09	04:57 eta 17:14	10:55 eta 23:15	
10	05:32 eta 17:47	11:29 eta 23:51	

» ZAINTZAKO BOTIKAK

APIRILA

- 26an, Lasa.
- 27an eta 28an, Azaldegia.
- 29an, Larrañaga.
- 30ean, Mutiozabal.

MAIATZA

- 1ean, Lasa.
- 2an,
- 3an, Azaldegia.
- 4an eta 5ean, Mutiozabal.
- 6an, Larrañaga.
- 7an, Etxeberria.
- 8an, Gallo
- 9an, Azaldegia.
- 10ean, Zulaika

- Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- G. Artifiano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilarxoa Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	6:11	6:41	7:11	7:41	8:11	8:41	9:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:08	21:08	22:08
Aia-Orio	6:15	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.



RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
 943 83 10 48

Santi Barranco aseguru agentea

Arizaga 2, 2. ezkerria ORIO

Tf.: 618 581 398 - 659 218 221 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

SEGUROS BILBAO | Grupo CATALANA OCCIDENTE

ODITZ

tel. 943 83 00 89

MANTEROLA S/L
 ESFERA ETA RETENTZIOKO
 BALBULAK

Santiago auzoa - 18 postakutza
 Tel. 943 830 743
 Fax. 943 134 834
 E-mail: trmarterola@euskalnet.net
 20219 ORIO - GIPUZKOA

Enferako balbula
 AENOR kalitate partagarria

PERTSIANAK

Aluminio, PVC
 Venezianak
 Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 92 27

Orio

Bertsokak

■ Apirilaren 25ean, bertso afaria. Bertsolariak: Josu Sanjurjo, Julen Zelaieta eta Ioar Tainta. 21:00etan, Etxeluze gaztetxean.

Mustxapelketa

■ Apirilaren 26an, Mus Ligako 1. jardunaldia, Herrirak antolatuta. Izen-ematea: 21:30ean, Loretxu tabernan.

Kontzertua

■ Apirilaren 26an, Josu Bergara bakarlari bizkaitarraren kontzertua. Katiuska gorriak disko berriaren aurkezpena. 23:30ean, Kalakari tabernan.
■ Apirilaren 27an, Arramazka-Lasarte Oria eta Agurain eta Kasik-Azkoitia eta Azpeitia-taldearen kontzertua. Beren lan berriak aurkeztuko dituzte. 22:30ean, Etxeluze gaztetxean.
■ Maiatzaren 2an, Urko Meñaia bakarlari donostiarraren entsegu irekia, 19:00etan, Kultur Etxean.

Auzolana

■ Apirilaren 27an, herriguneko auzokonposta gunea auzolanean eraikitzeko hitzordua. Antolatzailea: Orio Zero Zabor. 09:00etan, Ikastolaren eta Karela kiroldegian arteko berdegunean.

Futbola

■ Apirilaren 27an, infantil mutilen kategorian, Orioko F.T.-Soraluze FT. 10:30ean, Mendi-beltz futbol zelaian.

Zergak

■ Apirilaren 30ean, ibilgai-luen aurtengo zirkulazio zerga ordaintzeko borondatezko epearen amaiera. Ordainketa: banketxean edo aurrezki kutxan. Ordainagiria udaletxera eraman behar da, ibilgailurako pegatina jasotzeko. 08:30etatik 14:30etara.

Bilera

■ Maiatzaren 3an, Orioko Surf Taldekoen batzarra. 19:00etan, Kultur Etxean.
■ Maiatzaren 9an, auzokonpostari buruzko bilera, 19:00etan, Kultur Etxean.

Mendia

■ Maiatzaren 4an eta 5ean mendizeharkaldia eski edo elur-erraketekin Pirinioetan, Talai Mendi elkarteak antolatuta. Maiatzaren 4an: Larra-Añamendi-Leskun. Maiatzaren 5ean: Leskun-Ansabereko lepoa-Pakiza-Belagoako aterpetxea. Irteera antolatzeko bilera, apirilaren 30ean, 20:00etan, Talai Mendiren lokalean.

Festa

■ Maiatzaren 4an, herriko eragileek zein norbanakoek

ijitoen akordioa sinatuko dute jai giroan. Porrotx pailazoak alaituko du festa. 11:00etan, Kiroldegian edo Kultur Etxe atzeko plazan.

Azoka

■ Maiatzaren 5ean, artisau azoka, Herriko Plazan eta bi zimitorioetan, 10:30etik 19:00etara.

Bingoa

■ Maiatzaren 8an, Zaharren Babeslekuak antolatutako bingo saioa, 16:30etik 18:30era, Kultur Etxean.

Informatika

■ Maiatzaren 13tik eta 21era, irudi eta soinu ikastaroa, 11:00etatik 13:00etara, KZgunean.
■ Maiatzaren 8an, IT txartela-Infomazioaren Teknologia-erabilera-ziurtagiri-lortzeko azterketa, 18:00etatik 20:00etara, KZgunean.

Ikastaroa

■ Maiatzaren 11n eta 12an, *Reconexión femenina* tailerra. Hizlaria: Rosa Moran druida. Prezioa: 110 euro. 16:00etatik 20:00etara, larunbatean; 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, igandean, Mandalara taldearen Antxiola kaleko lokalean. Erreserbak: 648 487 489 edo mandalarataldea@gmail.com

Irteera

■ Maiatzaren 9a arte: Herri Urratserako autobuserako izen-ematea. Txartelak salgai Uranga eta Lore burdindegietan eta Ikastolan. Prezioa: 10 euro.

Aia

Landare Berezien Azoka


■ Apirilaren 27an eta 28an, Landare Berezien Azoka. Sarreren prezioa: lau euro -12 urtetik beherakoak doan-. 10:00etatik 18:00etara, Iturrarango lorategi botanikoan.
■ Apirilaren 28an, landareekin zerikusia duten produktuen erakusketa, salmenta eta hitzaldiak, auto eta moto elektrikoak eta gaztelu puzgarriak, plazan.
■ Apirilaren 28an, Ikebana tailerra eta erakusketa, 10:00etatik 15:00etara, Kultur Etxean.

Erromeriak

■ Apirilaren 28an, erromeria-Ardilaurden-ekin, 18:30etik 21:30era, Aristerrazun.
■ Maiatzaren 5ean, erromeria Elizagoien ahizpekin, 18:30etan, Aristerrazun.

Kontzertua

■ Maiatzaren 5ean. Danbolin Musika Eskolako bandako kontzertua. 12:00etan, plazan.



erakusketa aldaketa,
%50a arteko beherapenak

dekorazio proiektuak
altzariak neurrira
tapiztegia
lan-elkarteen arteko koordinazioa

elaskoegia auzoa 20809 Aia-Dio / Gipuzkoa www.zureder.com 943 134 921

ZUR EDER
muebles tapicería altzariak



www.karkara.com

www.berria.info/berriataldea